

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Etixeroko txerrena

BETAURREAN DUZUN seihun eta hirurogeitaseigarrenarako prest jarri eta zeri heldu? Presbiteroaren bidezidorra baino egokiagorik... Eta Narbarteko erretore zenarenetik abiatu naiz.

Haritzarenaren tankerako hostoa du berarakiak. Izen honekin jaso zuen *Eruca Sativa* landarea Lakoizketak bere 1888ko hiztegi itzelean. Gaur egun *Eruca Vesicaria* subsp *Sativa* bezala ezagutzen dugu. *Eruca* landarearen latinezko izena da eta zorten edo gara motza adierazten du, *vesicaria* hitzak bixika edo maskuri antzekoa, fruituen itxuragatik, eta *sativa* hitzak landatutakoa dela dio.

Berarakia izen xelebrea eskorbutuari aurre egiteko bere gaitasunari zor zaiola dio apaizak. Lan horixe egiten duen C bitamina ugari duela badakigu gaur egun. Era berean latineko *Eruca* izenari beste jatorri bitxi bat aitortzen dio: “uro is”-etik omen dator, erre aditzetik, alegia. Landare hau ia beti gordinik jaten da, entsaladetan gehienetan, eta haren hostoak eta haziak biziak, kitzikatzaileak eta bertzaileak dira. Horra eliztarren txerrena. Esaerak dio etxero dela txerren bat...

Berarakia belarra da eta Mediterraneoaren bueltan aspaldi jan ohi dute. Landare guztien antzera, lehen basatiak jaten baziren ere oraingoak baratzetan hazi-

takoak dira. Baratza bazter batean lurra erabat berotu aurretik behin ereinez gero, hosto punta-berriak kenduz uzta etengabe-koa izango da, baldin eta tar-teko landare batzuk loratzen utzi eta haziak bertan erortzeraino bakean uzten badira. Aipatutako itsasoaren inguruko kulturetan era askotara baina gordinik jaten bada ere, Indian haren hazien olio darabilte. Senide duen *Brassica napus* var *Oelifera*, olio-arbiarenaren edo koltzarenaren tankerako olio hau afrodisiako latza omen da. Bixigarriak, beroak, kitzikatzaileak, minak, piperdunak eta mikatzak diren jaki guztien eran osasungarria da oso. Demonio deabru bihurri alaena!

Baten batek beharki ere deitzen duen landaretxo honek nahikoa beharki ematen du...



Eruca sativa, berarakia.

WWW.HALLANDBOTAN.ORG



MIGUEL ANGEL SALAMAN

50

Zein da azken 50 urtetan bere mozkina gehien hazi arazi dizkiogun landarea?

1960 eta 2010 urteen artean etekin gehien handitu zaizkion landarea artoa da (*Zea mays*), asko hazi diren soia, garia eta alpapa edo luzerna baino nabarmen gehiago. Galdera bat: 1960an batez besteko etekina hektareako 5.460 kilo arto baten, eta batez besteko urteroko hazkundea %1,9 izan bada, 2009. urtean zenbat kilo eman ditu hektarea horrek?

Barietate aukeraketa egokiari eta aurrerapen bioteknologikoei dagokie, nonbait, hazkundea.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.